

## Anfibioen gainbeherak malaria-agerraldiak areagotu zituen

Kitridiomikosiak eragindako anfibioen gainbeherak malaria-agerraldiak areagotu zituen 1990eko eta 2000ko hamarkadetan Erdialdeko Amerikan.

1980ko hamarkadatik aurrera, *Batrachochytrium dendrobatidis* onddoak eragindako gaitzak gogor eraso die mundu osoko anfibioei: 500 espezieri eragin die, eta 90 espezie desagerrarazi dituela uste da.

Costa Rican eta Panaman, gaitzak 1980ko hamarkadaren hasieratik 2000ko hamarkadara arte jo zuen gogorren. Eta justu garai horietan malaria-agerraldi handiak izan ziren. Ikertzaile batzuek bi gauzak lotuta ote dauden aztertu dute, anfibioak malaria transmititzen duten eltxoez elikatzen baitira. Horretarako, anfibioen heriotza eta malaria-kasuak denboran eta espazioan nola gertatu ziren konparatu dute, 1976tik 2016rako tartean. Eta ikusi dute bat datozela, anfibioen gainbehera hasi eta berehala hasi zirela handitzen malaria-kasuak.

Ikertzaileek azpimarratu dute biodibertsitateak gizakion osasunean duen garrantzia erakusten duela ikerketa horrek, eta ohartarazten dute biodibertsitate-galerak patogeno berriak errazago hedatzea eragin dezakeela. ●



Costa Ricako igel bat. ARG.: Danel Solabarrieta Arrizabalaga.

## Airea noiz berritu kalkulatzen duen sistema

Leku itxietako airea noiz eta zenbat berritu behar den kalkulatzen duen sistema bat diseinatu du Ana Ruiz Ilundain Nafarroako Unibertsitate Publikoko Industria Ingeniaritzako ikasleak.



Ana Ruiz Ilundain, airearen kalitatea neurtzen duen gailuarekin. ARG.: NUP.

Inbiot enpresaren gailu batekin egin du lan. “Gailuak airearen kalitatearen datuak neurtzen ditu, eta airea berritzeko sistema batekin zuzenean konektatua dagoen modulu batera bidaltzen ditu. Modulu horrek leku horretan zenbat aire berritu behar den kalkulatzen du, algoritmo batean oinarrituta”, azaldu du Ruizek.

“Gailu hau eta eskuzko kontrolagailuak konparatuz gero, bi gauza lortzen ditugu —dio Ruizek—: batetik, energia-kontsumoa murriztea, behar den airea baino ez baitugu berrituko une oro; eta, bestetik, osasuna eta ongizatea hobetzea”.

Horregatik, COVID-19aren kontra borrokatzeko irtenbideetarako ekimenen sari berezia eman diote, Ikasketen Amaierako Lanetarako Rural Kutxa Sariatako laugarren edizioan. ●